

Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea

Adierazten duenez, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 15 artikuluari jarraiki Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzorde sortzen da euskal administrazioen arteko informazio, komunikazio eta laguntzarako organo gisa. Batzordearen helburua izango da estrategiak adostea lankidetzako jarduerak aurrera eramateko orduan, deialdietan eta jarduketetan bikoizketarik eta estaldurarik ez gertatzeko eta euskal administrazioek lankidetzaren arloan oro har egiten duten lanari koherentzia emateko.

Erregulazioa:

71/2009 Dekretua, martxoaren 24koa, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearena.

Osaera:

- Garapenerako lankidetzaren gainean eskumenak dituen sailburuorde izango da Garapenerako Lankidetzaren Erakundeen arteko Batzordearen lehendakaria.
- Gainera, Garapenerako Lankidetzaren Erakundeen arteko Batzordeko kide dira:
 - a) Eusko Jaurlaritzaren ordeak egingo dituzten bi pertsona, euretariko bat Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria izango da, eta bestea eskudun sailburuak izendatzen duena.
 - b) Foru aldundietariko bakoitzaren ordezkari bat, aldundiko bakoitzeko eskudun organoak izendatzen duena.
 - c) Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bi, erakunde horek izendatutakoak.
 - d) Euskal Fondoa-Lankidetzarako Euskal Udal Erakundeen Elkartearen ordezkari bat, erakunde horrek izendatua.
 - e) Batzordeko buruak aukeratutako pertsona batek egingo ditu idazkari-lanak, eta pertsona horrek hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botorik ematekoa.

Eginkizunak:

- a) Garapenerako lankidetzari dagokionez, euskal administrazioen interlokuzio-gunea izatea, eta, halaber, tartean diren erakundeen estrategia-ildoak eta esperientziak partekatzea eta euskal lankidetzarako oro har garrantzitsuak diren informazioak trukitzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegotik egiten diren ekintzak eta planifikazio estrategikoa koordinatzeko proposamenak prestatzea, eta bai garapenerako euskal lankidetzaren eragina optimizatzea ere.
- c) Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea aplikatzearen gaineko segimendua egitea, eta, batez ere, lege horretako 3.11 artikulua, betiere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari dagokionez otsailaren 22ko 1/2007 Legeko 16.3.d) artikuluan ezarritakoaren aurka egin gabe.
- d) Talde Teknikoaren lana zuzendu eta gainbegiratu.